# >anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2014ko martxoaren 28a
12. urtea
539. alea
www.anboto.org
TOKIKOM


## Kultura

Durangoko Yoko Out musika taldeak 'Portabentura' disko berria aurkeztuko du Plateruenekо taula gainean > 11



# Lanbide Ikastetxea, bide berriak zabaltzen

Milaka ikaslek Durangaldeko Lanbide Ikastetxean ikasi dute azken 27 urteotan. 16 eta 18 urte arteko gazteek ikasketak amaitu ez, eta ofizio bat ikasteko aukera dute egoitza Durangon duen zentroan. Bertan eskaintzen den programa ez da bidearen helmuga, aukera berri baten hasiera baino > 6



## Larrialdietarako anbulantzia ez dela medikalizatua kritikatu dute > 3

Landakoko larrialdietako beharginek eta hainbat udalek Durangalderako anbulantzia medikalizatua eskatu zuten orain hilabete batzuk. Izan ere, gertuen dagoen ezaugarri horietako anbulantzia Gernikan dago. Osakidetzak anbulantzia berria ipini du asteon, baina ez da eskatutakoa. Anbulantzian erizain bat egongo da, baina ez du ZIU zainketa intentsiboetako unitate mugikorrik. Egunez Durangon egongo da, eta gauez Zornotzan. CCOOk eta PSE-EEk Osakidetzaren erabakia kritikatu dute.







Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa
Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan
Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com



**Abadiño > 2**
Aktibitate lizentzia eskatuko dio udalak hormigoi fabrikari

**Durangaldea > 4**
Bildu: "Gasteizerako lineari alegazioak egiteko momentua da"

**Izurtza > 8**
Garauntzako kooperatiban izena eman dezakete Durangaldekoek

**Durangaldea > 3**
Gizarte larrialdietarako laguntza iaz %35 handitu zela azaldu dute

# Herririk herri

> ABADIÑO

## Aktibitate lizentzia eskatuko dio udalak hormigoi fabrikari

Bildu: "Agerian geratu da arrazoi genuela irregulartasunak salatzerakoan"



Urtarrilean, prentsaurrekoan salatu zuen Bilduk "legez kanpoko hormigoi fabrika baimentzen" duela Abadiñoko Udalak.

> ITSASO ESTEBAN

Gerediaga-Elorrio autobideko lanetarako eraiki duten hormigoi fabrikak udal baimenik barik dihardela salatu zuen Abadiñoko Bilduk urtarrilean. Gaia aztertzeko txosten juridikoa egiteko agindua eman zuen horren ondorioz alkatetzak. Aste honetako udalbatzarrean aurkezturiko alkatetza dekretuaren arabera, udalak fabrikak falta duen aktibitate lizentzia eskatuko die arduradunei; baina "egoera zuzendu dezaketelakoan, ez dugu uste obra geldiarazi behar dugunik", azpimarratu zuen Jose Luis Navarro alkateak.

Martitzeneko osoko bilkuran aurkezturiko alkatetza dekretuetako bat izan zen Gerediaga-Elorrio autobideko lanetako hormigoi fabrikari erreferentzia egiten diona. Dekretu hori azaltzeko eskatu zion Saioa Zuazubizkar Bilduko zinegotziak alkateari. "Zer neurri hartuko ditu udalak?", galdetu zion.

Navarro alkateak adierazi zuen berriro eztabaida horretan sartzeko asmorik ez zeukala, osoko bilkura hasi orduko batzordean hitz egin berri zutelako. "Baina sen onak diost hau bezalako obra bat geldiaraztea ez litzatekeela aukera egokia", azpimarratu zuen alkateak.

"Agerian geratu da arrazoi genuela irregulartasunak salatu genituenean", esan zuen Saioa Zuazubizkar Bilduko zinegotziak. "Edozelan ere, gure zalantza da, hau bezalako irregulartasunak oposizioak salatu behar izateko, nora begira egon den alkatetza". Hormigoi fabrikaren kontrako zigor espedientea ahalik eta lasterren abiatzea eskatu zuen, bestalde, Bilduk.

## Apirilean hasiko dira Gerediagako juntetxearen ingurua zabaltzen

> I.E.

Apirileko lehenengo asteburutik aurrera hasiko dira Gerediagako juntetxearen ingurua zapatuetan eta domeketan bisitariei eta auzotarrei zabaltzen. "Proba moduan hasiko gara asteburuetan zabaltzen, eta emaitzaren arabera erabakiko dugu egunero zabaldu edo ez", jakinarazi du Jose Luis Navarro alkateak.

Gerediaga Elkarteagaz zehaztuko du Abadiñoko Udalak gunearen irekiera ordutegia, eta alkateak aurreratu duenez, dena lotuta daukatenean, batzarra egingo dute auzotarrekin; "izan ere, eurak ere badira lorpen honen erantzule. Eurak izango dira, gainera, gunea zabaltzearen onuradunetako batzuk".

Bizkaiko Batzar Nagusiekin horrela adostuta, udalak hartu du asteburuetan gunea itxi eta zabaltzearen, garbiketaren eta segurtasun arloarena ardura.

> BERRIZ

## Premia dutenentzat, auzo taxia herrigunean

Mugikortasun arazoak dituzten berriztarrek herrigunetik mugitzeko erabili ahalko dute zerbitzua

> AMAIA UGALDE

Auzoetatik herrigunera eta auzoz auzo joan-etorriak egiten urtebete daroa Berrizko auzo taxi zerbitzuak. Oraindik aurrera, herrigune barruan mugitzeko aukera ere eskainiko die mugikortasun arazoak dituzten herritarrei.

Urte honetako balorazioa egindakoan, "erabilera ezohikoak" ikusi dituztela azaldu du Orland Isoird Berrizko alkateak. Herritarrek zentroan mugitzeko erabili dute taxia, "eta hori ez zen helburua". Aukera hori, hala ere, beharrezkotzat jo dute

> Urtebeteko balorazioa egindakoan "erabilera ezohikoak" ikusi dituztela azaldu du Orland Isoirdek

mugikortasun arazoak dituztenentzat.

Herriguneko zerbitzua erabiltzeko, herritarrek mugikortasun edo mendekotasun arazoak dituztela dioen Bizkaiko Foru Aldundiaren agiria aurkeztu beharko dute, edo arazoa aldi baterakoa denean, medikuak emandako ziurtagiria. Eskaera udal bulegoetan egin ahalko da.

### 380 erabiltzaile

Auzo taxiko erabiltzaile txartela 380 berriztarrek daukate. Astelehenetik zapatura ematen dute zerbitzua taxi-gidariek, astegunetan 07:30etik 21:00ak arte, eta zapatuetan goizez, 09:00etatik 14:00etara. Taxilari bi dabiltza lanean, eta euren telefono zenbakia 650 022 800 da.

## Sallobenten oinaztu batek etxe bat jo du

Etxeko jabea barruan zegoen, baina onik irten da

> A.U.

Martitzenean, 18:00 aldera izan zen ezbeharra. Sallobente auzoan, Etxaburuaurre baserriko teilatua jo zuen oinaztuak, eta teilak apurtuta, barruraino sartu zen. Baserri barruan kalte handia eragin zuen. Barruan zegoen etxeko jabea, Emilia Agirrebeitia, eta onik irten zen. Momentu hartan ezkaratzean zegoen Agirrebeitia: "Ahal izan nuen moduan irten behar, ez nuen ezer ikusten-eta, dena hautsa eta zaborra zen". Susto handia hartu zuen, baina zorionez kolperik ez: "Disgustua bera nahiko kolpe da". Bakarrik bizi izan da Agirrebeitia etxean, eta, orain, familiarekin dago.

Berrizko alkate Orland Isoirden berbetan, eguraldia hobetzerakoan ikusiko da konponketa lanak zelan egin: "Egitura bera ondo dagoela ematen du, baina kalteak handiak dira. Inportanteena da etxeko jabea salbu dagoela".

Laguntzaileak:
BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du
Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Zaldibar, Zornotza
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org
2014ko martxoaren 28a, 12. urtea - 539. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea.
**Administrazio burua:** Itziar Belar.
**Administrazioa:** Miren Abasolo eta Nagore Aranburu.
**Publizitatea:** Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Joseba Derteano. Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Maialen Zuazubiskar.
**Maketazioa:** Eider Alberdi.
**Zuzentzailea:** Jon Ander Urkiaga.
**Argazkilariak:** Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

# Larrialdietarako anbulantzia berria, baina ez eskatutakoa

Osakidetzak anbulantzia berria ipini du erizain bategaz Durangaldean, baina ez da medikalizatua



Anbulantzia berria 09:00etatik 21:00etara egoten da Durangon, Kurutziaga kalean.

> MARKEL ONAINDIA

Landakoko larrialdietako beharginek eta Durangaldeko hainbat udalek eskualderako anbulantzia medikalizatu bat eskatu eta hilabete batzuetara, Osakidetzak anbulantzia berria ipini du, baina ez eskatutakoa. Medikalizatua, ZIU zainketa intentsiboetako unitate mugikor lez hornituta egoten da, eta medikua eta erizaina egoten dira. Ipinitako anbulantzia berrian erizaina soilik dago, egunez, eta bere lanerako tresnak dauzka.

Durangaldetik hurbilen dagoen anbulantzia medikalizatua Gernikan dago, eta egoera larri bat sortzean handik honako bidaia egiten du. Etortzeko behar duen denbora gaixoaren osasunarentzako erabakiorra izan ahal dela esan izan dute beharginek. Anbulantzia horren beharrizana beharginek eurek azaleratu zuten, lan baldintzen inguruko kexak publiko egin zituztenean. Anbulantziaz gainera, lan karga handitu zitzaiela, baina lan taldeagaz gauza bera ez zela gertatu kritikatu zuten. Erizain bat gehiago eskatu zuten, irteerak eginez gero, zentroan erizain barik geratzen ziren-eta. Momentuz, erizaina irtetean beste bati deitzeko aukera eman diete.

### Ez da nahikoa

Osakidetzak zerbitzua hobetu du anbulantzia berriagaz. Izan ere, gidaria eta teknikari bat bakarrik eskaintzen ziren orain arte. 09:00etatik 21:00etara Durangon egoten da anbulantzia, eta 21:00etatik 09:00etara Zornotzan. Gauez, baina, ez dago erizainik. Zerbitzuak ez ditu langileak eta politikariak ase. CCOO sindikatutik adierazi dute momentuko erabaki edo ekimen bat ematen duela: "Ez du sakoneko arazoa konponduko". Beraz, sindikatuaren ustez ez da nahikoa. "Anbulantzia honek ez du medikalizatu baten lana egingo. Ona litzateke gehigarri lez, baina ez da ZIU mugikorra". Azaldu dute, esaterako, erizain batek ezin dituela hartu mediku batek hartzen dituen erabakiak eta neurriak.

> Durangaldetik hurbilen dagoen anbulantzia medikalizatua Gernikan dago

Gainera, beharginak ez dituzte ofizialki informatu zerbitzu berriaz, eta ez dute funtzionamenduaren berririk. Protokoloa behar dutela diote CCOOtik. Horri lotuta, larrialdi zentroko gainerako protokoloak ere oraindik ez dituztela jaso kritikatu du. Lan baldintzek herritarren osasun arretan eragina izan ahal dute CCOOren ustez.

### PSE-EEren kritika

"Urkulluren gobernuak tirita bat ipini du, baina ez du zerbitzu duinaren faltak eragindako zauria sendatu". Metafora hori erabilita kritikatu du Pilar Riosek (PSE-EE) Osakidetzaren neurria. Mozio bat aurkeztu zuten anbulantzia medikalizatua eskatzeko, eta hainbat udalek babestu zuten: Durangok, Elorriok, Iurretak, Berrizek eta Zaldibarrek, esaterako. EAJk ez beste guztiek babestu zuten.

# Gizarte larrialdietarako laguntzan, 74 eskari gehiago urtebetean

Gizarte larrialdietako laguntza 381 herritarrek jaso zuten iaz; 2012an 307k

> A.U. / M.O.

Durangaldeko Amankomunazgoaren bidez 451.000 euroko laguntza banatu zen iaz gizarte larrialdietarako. 2012agaz alderatuta, kopurua %35 handitu zela adierazi dute Amankomunazgoko ordezkariek. Izan ere, eskatzaileen kopuruak ere gora egin zuen. Guztira 381 herritarrek jaso zuten laguntza; 2012an 307k.

Egindako eskaera gehienak, %86, etxebizitzagaz lotutako beharrizanek eragin zituzten. Eskaria egin duten pertsonetatik %42 bakarrik bizi da, %41 familian, eta %16 bikote batekin. Eskatzaileen jatorriari dagokionez, %51 bertakoak izan dira, eta %49 atzerritik etorritakoak. Diru-laguntza horiek egoera larrian edota gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonei ematen zaizkiela azaldu du Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidenteak.

> Eskaera gehienak, %86, etxebizitzagaz lotutako beharrizanek eragin zituzten

### 2014rako aurreikuspena

2014rako Eusko Jaurlaritzak 406.000 euroko diru poltsa emango dio Amankomunazgoari, gizarte larrialdietako laguntza kudeatzeko. Eskarien arabera, diru kopuru hori agortzen bada, Amankomunazgoak ipiniko du beharrezko dirua, azaldu dutenaren arabera.

# Jagoleak egongo dira Berrizen eta Zaldibarren

Durangaldeko Enplegu Planaren harira adostu zuten

> M.O.

Lanbidek emandako diru-laguntza baten bidez, herri jagole bana egongo dira sei hilerako Berrizen eta Zaldibarren. Enplegu Planaren harira adostu zuten Urkiola Landa Garapena izatea bi lanpostu horien kontratatzailea. Beraz, udalek ez dituzte pertsonak zuzenean hartuko, nahiz eta herrian lan egin. Hori bai, kontratuaren baldintzak bateratu dituzte.

Berrizko udalbatzak joan zen astean onartu zuen ekimena ofizialki. Orain kontratazio epea hasiko da, eta ostean hasiko dira lanean jagoleak. Berrizen jagoleak izango dituen funtzio batzuk azaldu zituen Orland Isoird alkateak (EAJ). Alde batetik, "gizabidearen kontrako ekintzak" identifikatu, eta udalari abisu ematea; esaterako, zabor pilaketak edota adingabeei alkohola saltzea. Bestetik, azpiegituraren bat kaltetzerakoan informatuko du. Udalaren kanpainen berri ere emango du. Gainera, udaltzaingoari lagunduko dio momentu batzuetan, eskola irteerako orduetan, kasu.



Baserritarren eta Euskal
Herriko basoen zerbitzura
Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxa: 946 205 194

> DURANGALDEA

# Gasteizerako lineari alegazioak egiteko, "orain da garaia"

Apirilaren 10ean amaituko da Gasteizerako lineari alegazioak egiteko epea



Endika Jaio, Santi Uribe eta Luis José Ballarín, Otxandion eskainitako prentsaurrekoan.

> MARKEL ONAINDIA

"Orain da garaia". Apirilaren 10ean amaituko da Durango-Gasteiz autobus linearen esleipen berriari alegazioak egiteko epea, eta Santi Uribe Otxandioko alkatearen (Bildu) berbetan, orain aldatzea lortu ezean, oso gaitza izango da hurrengo hamar urteetan aldatzea. Esleipen berriagaz, autobusari kritikatutako baldintzak egonkortuko lirateke. Otxandion eman zuten prentsaurrekoa joan zen barikuan Uribek, Endika Jaio Mañariko alkateak eta Luis José Ballarín Izurtzakoak. Adierazi zuten herriotako garraio publiko nagusia dela linea hori, eta azken urteetan herritarren hainbat kexa jaso dituztela. Horregatik, Bizkaiko eta Arabako aldundiekin batu izan dira.

Arabako Foru Aldundiak adjudikazio bera proposatzen du, eta enpresari autonomia osoa emango lioke. Ez dio diruz lagunduko. "Herrietako mugikortasun premiak enpresa pribatu baten errentagarritasun irizpideen esku utzi ditu", dio Bilduk. Koalizioaren alegazioek hiru eskaera jasoko dituzte: autonomia eta esklusibotasuna kentzea, beharrizanak asetzeko moduko maiztasuna edukitzea eta autobusen gutxieneko baldintza teknikoak bermatzea.

Erabiltzaileei ere alegazioak egiteko deia egin diete. Mañarian udaletxean, liburutegian eta tabernetan ipiniko dituzte orriak. Izurtzan, jubilatuen eta gazteen babesa eskatuko dute. Bilduren asmoa salaketa Durangoko Udalagaz batera egitea zen, baina EAJk gurago du bere kabuz landu. Durangokoak dira erabiltzaile gehienak; batzuk prest daude udalagaz alegazioa elkarlanean prestatzeko, baina ez dute banan-banan egingo.

### Gurasoak antolatzen

Autobus kopuru antzekoa mantentzea jasotzen du esleipenaren proposamenak, baina ordutegian aldaketak egin dira. Goiz erdikoak kendu dituzte, eta goizetik eguerdira autobus bako tarte handia sortu da, ia bost ordukoa. Herriotako biztanleak goizetan Durangora edo Gasteizera joaten dira hainbat zerbitzu jasotzera: osasun arreta, adibidez. Otxandioko ikasleek ere nabarmen igarri dezakete. Gehienek Iurretan egiten dute Bigarren Hezkuntza, Juan Orobiogoitia ikastetxean. 15:00etan amaituta, segituan hartzen dute autobusa. Baina, ordutegi berriagaz 17:00ak arte itxaron beharko lukete etxeratzeko. Guraso elkartekoek alegazioa egin dute, eta Iurretako guraso elkartearen babesa dute. Otxandioko jubilatuen elkartearena ere bai.

Bizkaitarren arazoa zail izango da Araban konpontzea. Horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiari inplikatzea eskatu diote.

> ATXONDO

## Kultur arteko jaialdia prestatzen hasteko batzarra egingo dute gaur

> JOSEBA DERTEANO

Kultur arteko jaialdiak hirugarren aldia egingo du aurten, eta hori antolatzen hasteko lehenengo batzar irekia gaur egingo dute, 18:30ean, udaletxeko udalbatzar aretoan. Herritar guztiei luzatu diete deia udal ordezkariek, bertaratzeko, eta antolakuntzan laguntzeko zein ekarpenak egiteko. Asmoa da aurrerantzean barikuro batzea. Orain arteko ekitaldi biak urrian egin izan dituzte, baina iaz eguraldi txarrak ez zion ekimenari batere lagundu, eta aurten jaialdia maiatz amaierara edo ekain hasierara aurreratzea erabaki dute. Jaialdiaren helburua herritarrei atzerrikoak diren askotariko kulturak ezagutzeko modua eskaintzea da; baita herrian bizi diren etorkinei bertako kultura ezagutzeko bideak eskaintzea ere.

### Kontzertua gaztetxean

Gazte asanbladak eta Marixurrikek ekintzak prestatu dituzte gaurko, gaztetxean. 18:00etan Miren Erdoiza ipuin kontalaria ariko da; 21:00etan parrilada dago; eta 22:30ean Puro luego taldearen kontzertua egongo da.

> IURRETA

# Gurutze Gorriaren lana, azukre zorroetan

3.000.000 azukre zorrotan hamar mezu idatzi dituzte



Gurutze Gorriko eta Cafés Baqueko ordezkariak, hitzarmena sinatzen.

> AMAIA UGALDE

Cafés Baquegaz hitzarmena sinatu du Gurutze Gorriak; 3 milioi azukre zorrotan Gurutze Gorriari buruzko mezuak ipiniko dituzte. Hamar mezu dauzkate azukre zorroek. "Elkarteak egiten duen lana herritarrengana gerturatzeko bide bat" dela nabarmendu du Iñaki Irusta euskal Gurutze Gorriko presidenteak.

Bizkaian 2.800 boluntario dauzka Gurutze Gorriak, eta hasierako errepideko lanaz harago, "gizarteak eskatzen duenari erantzun guran", esku artean hainbat ekimen dituztela nabarmendu dute.

## Tabernetako eta dendetako euskararen erabilera aztergai

> AMAIA UGALDE

Elhuyar Aholkularitzaren laguntzagaz, herriko merkataritzan eta ostalaritzan euskarak daukan lekua aztertzen hasi da Iurretako Udala.

Martxoa eta apirila bitartean egoera zein den aztertuko dute hiru alderditan: establezimenduetako hizkuntza paisaia –errotuluak, kartelak eta oharrak, esaterako–, denda eta tabernetako idatzietako hizkuntza –fakturak, ordainagiriak eta publizitate euskarriak, adibidez– eta hizkuntzen ahozko erabilera, bezeroekin, eta baita hornitzaile eta langileen artean ere.

Egoeraren diagnostikoa eginda, euskararen presentzia handitzeko neurriak hartzea da asmoa. Horrela azaldu du ohar bidez Iñaki Totorikaguena alkateak: "Euskararen aldeko konpromisoak hartzera animatu eta lagundu gura ditugu merkatariak".

## Gure Esku Dago ekimenak taldea sortu du herrian

> A.U.

Erabakitzeko eskubidearen aldeko Gure Esku Dago ekimenagaz bat eginda, taldea sortu dute Iurretan. Gaur egingo du taldeak bere lehenengo ekintza; 19:00etan bideo emanaldia eskainiko dute Dantzari plazan. Apirilaren 4an eta 5ean, bestetik, ekainaren 8an egingo den giza katerako metroak salduko dituzte plazan eta Askondon.

> ELORRIO

## Ume saharauiak etxean hartzeko deialdia egin du Lajwad Elkarteak

> M.O.

Saharauiekin Elkartasuna lantzen duen Elorrioko Lajwad Elkarteak Oporrak Bakean egitasmoaren berri eman du. Urtero lez, uda pasatzera etorriko dira Euskal Herrira ume saharauiak. Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpalekuetako tenperatura beroak saihestuko dituzte, eta elikadura zein osasun arreta egokiak hartuko dituzte. Umeak etxean hartzeko boluntarioen beharra dago, eta ekimenean parte hartzeko deialdia egin du Lajwad Elkarteak. Apirilaren 30era arte eman ahal da izena udaletxeko erregistroan, eta interesa dutenentzako batzar informatiboa antolatu dute hilaren 9an, 18:00etan, Iturrin.

### Hile birako

Ume saharauiek hile bi inguru pasatuko dituzte Elorrion, uztaileko eta abuztuko egunetan. Udala egingo da umeen hegazkin eta bidaia gastuen kargu. Gero, hemen daudela, haginen eta begien azterketak egin behar zaizkie.

> GARAI

## Garaitarrak Lantziegora doaz, senidetza ospatzera

> M.O.

40 herritar baino gehiago Lantziegora (Araba) joango dira bihar, herri bien arteko senidetza ospatzera. Lotura ofizial hori iazko martxoan adostu zuten Garain egindako jai batean, eta, aurten, Lantziegon elkartzea erabaki dute. Dantza taldeen partetik sortu zen herri bien arteko erlazioa, eta iaztik senide dira herriok.

Biharko egun-pasarako goizeko 08:45ean geratu dira garaitarrak, eta autobusean joango dira Lantziegora. Ailegatzean, lehenik, hamaiketakoa egingo dute. Gero, udaletxean dokumentu bat sinatuko dute herri bietako ordezkariek. Lantziego hobeto ezagutzeko asmoz, antzina olioa zelan egiten zuten ikusiko dute. Ostean, inguruko upategi bat bisitatuko dute, eta poteorako astia ere hartuko dute. Eguerdian pilotalekuan batuko dira bazkaltzeko, eta arratsaldean erromeriagaz jarraituko du jaiak. Antolatzaileen arabera, iluntzeko 20:00 aldera bueltatuko dira Garaira.





**RENAULT OCASIÓN**

**Renault Mégane Berlina Gama: kontsumo mistoa (l/100 km), 3,5etik 5,4ra bitartean $CO_2$-aren isuria (g/km), 90etik 124ra bitartean.**

Eskaintza partikularrentzat da, eta 2014/04/15n bukatuko da edo izakinak agortu arte (20 ibilgailu) (lehendabizi gertatzen dena) Renault Gaursan. PSPk transferentzia-gastuak barne ditu,RCI Banque Sucurcal en España-rekin gutxienez 4.000 € finantzatuta 24 hilabete baino gutxiagoko bigarren eskuko ibilgailuen deskontu-promozioaren bidez. Gutxienezko epea 24 hilabete. RECSA eta Gaursak eskainitako deskontua. Ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin.

**Renault** gomendatzen du elf

RENAULT

**GAURSA**
ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA • GRAN VIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBO www.gaursaautoak.com
**BILBO BERRI**
JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU www.bilboberri.com

> DURANGO





# Lanbide Heziketa, bide berriak zabaltzeko aukera

## Milaka ikasle prestatu dira Lanbide Ikastetxean azken 27 urteetan

> JONE GUENETXEA

Ogia egiten, egurrezko armairua eraikitzen edo ate bat margotzen. 16 eta 18 urte arteko gazteak dira, eta Amankomunazgoaren Lanbide prestakuntzarako zentroan ikasten dute.

> Gazteek beste ikasketa batzuk gainditu ez, eta ofizio bat ikasteko aukera dute Lanbide Ikastetxean

DBH edo beste ikasketa batzuk gainditu ez, eta ofizio bat ikasteko aukera dute. Urte bi barru azterketak gainditzen dituztenek langile edo laguntzaile titulua eskuratuko dute. Programa honen helburua nahitaezko hezkuntzako oinarrizko gaitasunetara behar bezala iristen ez diren ikasleei kalitatezko lan munduratzea eskaintzea da. Gazte askok ikasketa arloan azken erremediotzat ikusten zuten Lanbide Ikastetxea. Baina ikuspegi hori aldatzen joan da apurka-apurka, bai gazteen aldetik, bai gurasoen aldetik. Lanbide Heziketa ez da ezin dutenen azken helmuga, aukera berriak zabaltzen laguntzeko aukera baizik. Gainera, ikasle horiek irakaskuntza arautuetako ikasketekin jarraitzeko aukera dute. Bi ikasturtean DBH gainditzeko aukera eskaintzen diete. Batxilergorako zein erdi mailako ziklo baterako ateak irekitzea motibagarria da askorentzat. Augusto Uriarte Lanbide Heziketako arduradunak dioenez, "ikasturte bakoitzean, batez beste, 40 ikasletik 12k DBH gainditzen du".

Ikasturte honetan 90 gaztek dihardute, zortzi taldetan banatuta: zurgintza, pintura, iturgintza, ostalaritza, lorezaintza, arotzeria metalikoa eta elektrizitatea ikasten dabiltza. Ordu bi ematen dituzte alde teorikoa lantzen, eta gainerako denbora lanbide bakoitza ikasten Durangoko zentroan.

Proiektua 1986an jarri zuten martxan Durangaldeko Amankomunazgoaren ekimenez. Lanbide Hastapena izena zuen sasoi hartan, eta arautu gabeko irakaskuntzaren barruan ziharduen lanean. 2008tik aurrera, irakaskuntza arautuan dihardute. Urte hauetan milaka ikaslek programa honi esker ofizio bat ikasi dute. Langile edo laguntzaile titulua jaso dute lan merkatura oinarrizko prestakuntzagaz irteteko. Beste batzuk, DBHko titulua aterata, hezkuntza sisteman integratu dira berriro.

## LOMCE legea Lanbide Heziketan ere bai

Wert ministroaren LOMCE legeak Lanbide Heziketa arautzea aurreikusten du. Hala ere, Eusko Jaurlaritza datorren ikasturterako dekretu bat tramitatzen ari da. Aldi baterako Formazio Integratua deitu gura dioten programak Lanbide Heziketaren egitarau bera izango du. Beraz, hurrengo ikasturterako ez da aldaketarik aurreikusten. Baina 2015-2016 ikasturtean Lanbide Heziketagaz gertatuko dena oraindik ez da argitu. LOMCEk ikasle hauek Oinarrizko Lanbide Heziketara bideratuko ditu, erdi mailako eta goi mailako zikloak ere eskaintzen dituzten zentroetan. EAEn Lanbide Heziketako 26 zentro daude, tartean Durangaldekoa.

# LOMCEren kontra greba eta elkarretaratzeak egin dituzte Durangaldean

## Eguena ikasleentzako mobilizazio eguna izan da

> A.U.

"Euskal Herrian herritik eta herriarentzat eraikiko den hezkuntza sistema propioaren alde" greba egin zuten atzo. Ikasle Abertzaleek deitu zuten grebara, eta Bilboko manifestaziora joateko Durangaldeko hainbat ikasle batu ziren.

Durangon, Durangoko institutuan, ikasleen grebaz gainera, irakasleen klaustroak idatzi bat bidali dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari LOMCE ez dezala aplikatu eskatzeko. Ibaizabal ikastolako ikasleek greba egin zuten eta langileak elkarretaratzean bildu ziren eguerdian. Kurutziaga ikastolan eta Landako eskolan, aldiz, ikastetxe aurrean elkarretaratzeak egin zituzten.

Zornotzan, Urritxe institutuko Batxilergoko ikasle guztiek egin zuten bat grebagaz. Iurretan, berriz, Juan Orobiogoitia institutuko DBHko bigarren zikloko ikasleek eta Batxilergokoek egin zuten bat, eta, Elorrion, Elorrioko institutuko DBH 3. mailako ikasleek.




Durangoko institutuko irakasleak atzo egindako elkarretaratzean.






# Abenturaz betetako kanpaldiak prestatu ditu Berbarok udarako

Batez ere udaleku ibiltarietan edukiko dute abenturazale sena probatzeko aukera



Iazko udalekuetan, jolasean zeudela hartutako irudi bat.

> MARKEL ONAINDIA

Berbarok aurtengo udarako ere gazteentzako kanpaldiak prestatu ditu, eta abenturaz beteta datoz. Guztira lau udaleku egongo dira, bi finkoak eta beste biak ibiltariak. Batez ere ibiltarietan edukiko dute abenturazale sena probatzeko aukera. Mendi, hondartza eta herri ugari ezagutuko dituzte Gipuzkoan zehar. Euskal giroan, ur ekintzak eta orientazio jolasak garatuko dituzte, adibidez.

DBHko 1. eta 2. mailetako gazteek Zumaiatik Urnietarako bidea egingo dute uztailaren 14tik 25era. DBHko 3. eta 4. mailetakoek alderantzizkoa egingo dute uztailaren 18tik 29ra, Urnietatik Zumaiara. Urnietan aterpetxe batean egongo dira, eta gainerakoetan kiroldegietan, eskoletan eta bordetan egingo dute lo.

Bestalde, LHko 3. eta 4. mailetakoak Mendigorrian (Nafarroa) egongo dira udalekuaz gozatzen, eta LHko 5. eta 6. mailetakoak Ozaetan (Araba).

Izena emateko azken eguna apirilaren 30a da. 946 201 918 telefonoan edo *gazteak@berbaro.com* helbidera idatzita apuntatu ahal da. Berbaroko bazkideek eta seme-alaba bitik gorakoek deskontuak edukiko dituzte.

## Manifestaziora deitu dute dispertsioaren kontra

> M.O.

Euskal presoen dispertsioaren kontrako manifestazioa deitu du herritar talde batek apirilaren 4rako. 19:30ean hasiko da protesta, Andra Marin, eta Durangoko kale nagusiak zeharkatuko ditu. Urte bi pasatu dira ETAk ekintza armatuen amaiera iragarri zuenetik, baina Espainiako eta Frantziako gobernuek ez dute espetxe politika aldatu. Dispertsioak senide eta lagunak ere kaltetzen dituela ohartarazi dute deitzaileek: "Sakabanaketak eta etengabeko zigorrek egoera larrian jartzen dituzte gure senide eta lagunak". Azaldu dutenez, Durangoko senideek asteburuero 18.000 kilometro egiten dituzte guztira. Gainera, bidaia gastuak 2.900 eurora heltzen dira.

"Guzti honekin bukatu behar dugu, eta bukatuko dugu", esan dute mobilizazioaren antolatzaileek. Euren ustez, posible da dispertsioari amaiera ematea, baina horretarako aktibazio soziala beharrezkoa dela diote: "Bakoitzak beretik ekarpena egiteko sasoia da".

> ZALDIBAR

## Greban daude ospitale psikiatrikoko garbitzaileak

> I.E.

Martxoaren 20an abiatu zuten ospitale psikiatrikoko zortzi garbitzaileek UGT sindikatuak deituriko lanuztea. Dani Gonzalez UGTko eskualdeko arduradunak azaldu duenez, "psikiatrikoaren garbiketa lana langileok kontratatu dituen enpresari esleitu izan dio azken 20 urteetan Osakidetzak. Orain, egun batetik bestera, zerbitzua internalizatzeko asmoa agertu du Osasun Sailak". Gonzalezen berbetan, bertan lanean urte asko daramaten zortzi langile kaleratzea dakar erabaki horrek: enplegua suntsitzea. "Osakidetzak, gainera, ez du esan lanpostu horiek lan poltsa publikoetako kontratazio berriekin betetzeko asmoa duenik, barneko langileekin beteko dituela baizik".

"Kaleratzeak bertan behera uzten dituzten arte" mobilizazioekin jarraituko dutela diote langileek. Gonzalezek iragarri duenez, "areagotu" egingo dituzte. Besteak beste, zerbitzua internalizatzeko asmoa agertu du... Besteak beste, asteon bezala, elkarretaratzeak egingo dituzte datorren astean ere, 12:00etatik 13:00etara.


Durangaldeko berbalagunen

**VI. Kultur Lehiaketa**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1. Non dago Kotxintxina?** | **2. Zelan amaitzen da atsotitz hau: goian zerua eta behean lurra...** | **3. Zenbat balkoi dauzka Iruñeko udaletxeak fatxada nagusian?** | **4. Zein zuhaitz mota ageri da Gipuzkoakoa armarrian?** |
| a) Horrelakorik ez dago<br>b) Vietnamen<br>c) Laosen | a) tartean zoriontasuna<br>b) bizi da pobrea<br>c) erdian mundua | a) 7<br>b) 6<br>c) 8 | a) Haritza<br>b) Lizarra<br>c) Hagina |
| **5. Zenbat ahapaldi ditu Gernikako arbola kantak?** | **6. Zein instrumenturekin saiatu zen Mikel Laboa gitarrarekin baino lehen?** | **7. Nongoa da San Ferminetako entzierroko egurrezko hesia jartzen duen aroztegia?** | **8. Asteko zein egunetan hasten dira Baionako jaiak?** |
| a) 12<br>b) 6<br>c) 4 | a) Musu-gitarrarekin<br>b) Trikitiarekin<br>c) Pianoarekin | a) Gareskoa<br>b) Iruñekoa<br>c) Tuterakoa | a) Asteazkenez<br>b) Ostegunez<br>c) Ostiralez |
| **9. Aguakate hitza Ameriketako náhualt hizkuntzako ahuácatl hitzetik dator, baina zer esan nahi du?** | **10. Non dago Enparan dorretxea?** | **11. Zenbat emakume euskaltzain oso daude?** | **12. Nork idatzi zituen Pasaiako zezenaren bertsoak?** |
| a) Barrabilak<br>b) Titiak<br>c) Belarriak | a) Hendaian<br>b) Lesakan<br>c) Azpeitian | a) 5<br>b) 4<br>c) 3 | a) Txirritak<br>b) Bilintxek<br>c) Xenpelarrek |
| **13. Zein ibai igarotzen da Gatikatik?** | **14. Zer lelo agertzen da Real Sociedad futbol taldeko jokalarien kamisetaren aurrealdean?** | **15. Begira Photo festibalaren zenbatgarren edizioa izango da aurtengoa?** | **16. Nor da Gartxot komikiaren egilea?** |
| a) Butroe<br>b) Gobela<br>c) Lea | a) Gipuzkoa futbolarekin bat<br>b) Gipuzkoa euskararekin bat<br>c) Gipuzkoa Realarekin bat | a) Bigarrena<br>b) Hirugarrena<br>c) Laugarrena | a) Zaldi Eroa<br>b) Pernan Goñi<br>c) Asisko Urmeneta |

Izen-abizenak eta telefonoa:

**Erantzun zuzena markatu, eta entregatu herriko edozein euskaltegitan edo euskara-zerbitzuan, apirilaren 11 baino lehen.**

**SARIA**
**ASTEBURUPASA ZORAGARRIA**

639 400 786
www.durangaldea.blogspot.com
durangaldea@aek.org
Durangaldeko berbalagunak

Antolatzaileak eta Udalak

Babesleak

> IZURTZA

# Kooperatiba bidezko bizilekuetarako zerrenda eskualdera ireki dute

### Bazkide berrien bila dihardu udalak eta izen-ematea Durangaldeko biztanleei zabaltzea erabaki du



Etorkizunean Garauntza inguruan eraiki gura diren etxebizitzen irudia.

> JOSEBA DERTEANO

Garauntza lez ezagutzen den inguruan kooperatiba ereduaren bidez kudeatuko litzatekeen etxebizitza proiektua sustatzen dihardu udalak azken urteetan. Eraikin berriak hamalau etxebizitzarako tokia izango luke. Proiektuan parte hartu gura dutenentzako izen-ematea amaitu ostean, hamabi izurtzarrek erakutsi dute interesa. Baina epe luzera egitasmoaren bideragarritasuna bermatzeko, udalak beharrezko ikusten du falta diren bizileku bietarako bazkideak bilatzea, eta interesatuen ahalik zerrenda zabalena osatzea. Horregatik, eskualdera ireki dute izena emateko aukera.

Beraz, izen-ematea ez dago Izurtzan erroldatuta daudenei bakarrik mugatuta, nahiz eta horiek beti lehentasuna izango duten. Lehentasun mailan hurrengoak Izurtzan erroldatuta egon direnak, edo euren senitartekoak izango dira; ondoren, herrian bizi arren, erroldatuta ez dauden bizilagunak; eta, azkenik, oro har, Izurtzan erroldatuko liratekeen Durangaldeko bizilagunak. Proiektuaren gaineko informazio gehiago gura duena astegunetan Izurtzako udaletxetik igaro daiteke (11:00etatik 15:00etara) edo udeletxeko telefonora deitu. Proiektua gauzatuta, "etxebizitza berrien gabeziaren ondorioz, azken urteetan Izurtzak pairatutako despopulatzea eragotzi gura dugu", dio Luis Ballarin alkateak.

Kooperatiba bidezko eredua zabalduta dago Europako hainbat herrialdetan: Frantzian, Alemanian, Suedian eta, batez ere, Danimarkan. Ezaugarrietako bat da etxebizitzak kooperatibarenak izango liratekeela; bazkideek bizilekuen erabilera lagapena izango lukete.

> MALLABIA

# Autobus zerbitzua hobetzeko batzarrera deitu dute Eibarren

### Ekarpen orriak udaletxean eta kultur etxean daude

> JONE GUENETXEA

Debabarreneko Amankomunazgoak Gipuzkoako Foru Aldundiagaz batera autobus zerbitzua hobetzeko parte-hartze prozesua ipini du martxan. 56 herritako bizilagunen iritzia jaso eta gero, teknikariek aurreproiektuak ezagutzera eman dituzte. Prozesuaren bigarren fasea martxan jarri dute. Ekarpen orriak udaletxean eta kultur etxean bete daitezke, eta batzarra deitu dute apirilaren 1erako, 18:30ean, Eibarko Udaletxean. Mallabiari dagokionez, Mallabia-Ondarroa linean ibilbide osoa hamabost zerbitzuk emango dute norabide bakoitzean. Era berean, Ermua eta Mendaro artean 31 zerbitzu izango dira norabide bakoitzean. Gaineratu dutenez, horietatik hamazazpi Ermutik hasi beharrean Mallabitik hasiko dira, eta Mallabiraino iritsiko dira. Hau da, maiztasuna gaur egungoa izango da, baina egungo zerbitzuagaz alderatuta, azken orduko zerbitzuak luzatu egingo dira; 20:45eko autobusa Ondarroara arte helduko da, eta 21:15ekoa ere bai. Ondarroatik Elgoibarrera zerbitzu bat gehitu dute, 22:10ean.

# Bizkaiko Asto Proba Txapelketa Mallabian jokoan

### Apirilaren 6an lehiatuko dira, probalekuan

> J.G.

Bizkaiko Herri Kirol Federakundeak udalaren eta Txondor herri kirol taldearen laguntzagaz Bizkaiko Asto Proba Txapelketa antolatuko dute. Apirilaren 6an Mallabiko probalekua izango dute topaleku. Eguerdiko 12:00etan Egia eta Xatxibar lehiatuko dira. Arratsaldeko 18:00etan Alegria, Iker Legarreta, Maiora eta Ugalderen txanda izango da. Ekitaldi bakoitza 30 minutukoa izango da.

**Sariak denentzat**

Txapelketaren irabazleak 450 euro, manta, txapela eta garaikurra eramango ditu etxera sari moduan; bigarrenak, 400 euro eta garaikurra; hirugarrenak 350 euro eta garaikurra; laugarrenak 300 euro; bosgarrenak 275 euro; eta seigarrenak 250 euro.

> MAÑARIA

# Patinaje ikastaroa emango dute apirilean

> MARKEL ONAINDIA

Mañarian patinatzen ikasteko aukera edukiko dute, apirilean eskainiko duten ikastaro bati eskerrak. Hain zuzen ere, apirilaren 5ean eta 12an emango dituzte eskolak, goizeko 11:00etatik 12:30era bitartean. Leire Santeodoro ibiliko da ikastaroa dinamizatzen.

Ikastaroan p¶arte hartu gura dutenek apirilaren 4a baino lehen eman behar dute izena udaletxean edo liburutegian. Udaletxean izen-emateko ordutegia 07:30etik 11:00etara izango da, eta liburutegian 15:00etatik 19:00etara. Bost urtetik gorakoek parte hartu ahalko dute.

**Babesgarriak behar dira**

Antolatzaileek azaldu dute babesgarri guztiak eroan behar dituztela partaideek. Alde batetik, kaskoa, eta bestetik beulaunetako, ukondoetako eta eskumuturretako babesak.

## SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ
EAJ



### Euzko gudariak gara

Datorren astelehenean, hilak 31n, 77 urte beteko dira gure Uria, Francoren aginduz, Italiako abiazioak bonbardatu ebala.

Nortzuk dira Euzko Gudariak? Hau da bost urteko nire lobak galdetu eustana. Eta gure herriko bonbardaketa kontatu neutson, gure aurrekoek helarazitakoa adierazi neutson. Gerra izugarria piztu zala 1936an, eta Eusko Jaurlaritzak Demokraziaren alde egin ebala. Jose Antonio Agirre izeneko Lehendakari jeltzaleak, Herriaren eta herritarren eskubideen defentsa egin ebala, bai euskal lurraldeetan, baita erbestean be. Eta gerraren lehenengo egunetan, gure lurraldeak defendatzeko, gudarien hainbat batailoi sortu zirela (Kirikiño, Arana Goiri, Aralar, Ibaizabal etab. izeneko batailoiak). Eta oso era eskasean prestaturiko boluntario horiek, gudari horiek, hornidura militar urriekaz aurre egiten eutsela etsaiei. Eta gudariok, Lemona edo Saibigain izeneko mendietan, borroka odoltsuak jasan behar izan ebezala. Eta, euren bizia arriskuan jartzeko aldatz gora joatean, Euzko Gudariak gara Euzkadi askatzeko… kantetan ebela. Ez Errepublikaren hiru koloreko bandera defendatzeko, ikurriña baizik. Eta, euren bizia salbatzeko bidezko defentsan, inor tirokatzeko gogoa adierazi beharrean, gerturik daukagu odola bere aldez emateko… abesten eben. Emoteko, ez inori kentzeko. Horregaitik dira gudariak, eta horregaitik gure errespetu osoa merezi dabe: inoren bizia kendu beharrean eurena emoten ebelako. Hor dago desberdintasuna. Hor dago prestutasuna. Horiei bai, agur eta ohore.






> ZORNOTZA

# Zahartze aktiboa sustatzeko helburua du Nagusi Aretoak

Ohiko aisialdi eskaintzatik haratago joan gura dute zentro berrian

>JOSEBA DERTEANO

Joan zen hilean nagusiei bideratutako zentro berri bat sortzeko obrak hasi zituzten Gudari kalean, sasoi bateko postetxea zegoen eraikinean. Nagusi Aretoa deituko den zentroak aisialdirako aukera berriak eskainiko ditu. Ohiko aisialdi eredutik harago, zahartze aktiboari lotutako aisialdi plangintza diseinatu eta garatu gura dute bertan.



Gudari kalean, sasoi bateko postetxean egingo dute Nagusi Aretoa.

Gune berri horren beharrizana adierazi du Itsaso Iriondo Gizarte Ongizateko zinegotziak: "Biztanleria gero eta luzaroago bizi da, eta pertsona nagusi gehiago gaude. Konturatu ginen batzuek ohiko aisialdia gura dutela, baina beste hainbatek euren denbora librea betetzeko eta aktibo jarraitzeko beste aisialdi mota bat eskatzen dutela". Ohiko aisialdirako beharrizanak Nafarroa zentroak estaltzen ditu; Nagusi Aretoak aisialdi aukera berriak jorratuko ditu, eta horri begira egituratuko ditutze eraikin barruko 140 metro karratuak. Irailean inauguratu gura dute zentro berria.

> OTXANDIO

# Euskara sustatzeko plangintza osatu gura dute herritarrekin batera

Datozen eguen bietarako tailerrak antolatu dituzte

> J.D.

Gune geografiko euskaldunek euskararen normalizazio prozesuan duten garrantziaz jabetzeko, eta toki horietan eragiteko helburuz herriz herri tailerrak diseinatu dituzte Kontseiluak, Bertsozaleen Elkarteak, EHEk, EMUNek, Topaguneak eta UEMAk. Hurrengo tailer biak Otxandion izango dira: apirilaren 3an eta 10ean, 18:00etatik 20:00etara, Andresa Landan. Otxandioko Euskara Batzordeak herritarrei tailerretan parte hartzeko deia egin die, "Otxandio benetako euskararen arnasgune bihurtzeko". Herri bat arnasgunea dela esaten da, herri horretan hizkuntza bat erabilera arrunteko hizkuntza denean kaleko bizitzan, auzoan, familian, lagunartean zein lan munduan.

Apirilaren 3ko tailerrean arnasguneak zer diren eta zer garrantzi duten azalduko dute. Apirilaren 10ean herri mailan eragiteko esparruak definitu, eta aurrera begirako plangintza osatu gura dute.

> DURANGALDEA ASTEON

## Durangoko zinegotziak Saharan, errefuxiatuen egoera ezagutzeko

**BIDAIA INSTITUZIONALA>** Euskal Fondoa elkarteko Sahara Koordinazio Unitateak eta Frente Polisarioaren Euskadiko ordezkaritzak antolatutako bidaia instituzionalaren barruan, Durangoko Udaleko bost zinegotzi (EAJko bi eta Bilduko hiru) Saharan dira zapatura arte. Euskal Fondoak Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan abian jarri dituen egitasmoak ikuskatzea da helburua. Hainbat ordezkari politikorekin batu, eta askotariko azpiegiturak bisitatzeko asmoa dute egunotan.

## Asier Virumbrales etxean dago, eguaztenean aske geratu ostean

**LIBRE >** Asier Virumbrales berriztarra kalean dago, zortzi urteko kartzelaldia bete ostean. Eguaztenean askatu zuten Cordobako espetxean, eta atzo heldu zen etxera. Presoen defentsarako Askatasuna erakundeko kide izatea egotzita atxilotu zuten 2003an, Auzitegi Nazionalaren aginduz egindako operazioan. 2008an Gestoren eta Askatasunaren kontra egindako makroepaiketan zigortu zuten, beste hogei lagunekin batera.

## Euskaraz Bizi Eguna ekimenera joateko autobusak Durangotik

**GARRAIOBIDEA>** Gasteizen Euskaraz Bizi Eguna antolatuko dute apirilaren 5ean. Euskal Herrian Euskarazek eta Gasteizko zenbait eragilek auzolanean antolatutako egitarauan jaia eta aldarrikapena uztartuko dituzte. Durangotik autobusak antolatu dituzte bertaratzeko: 10:30ean irtengo da Madalenatik. Izenematea Plateruena Kafe Antzokian edo Intxaurre elkartean egin daiteke: 20 euro (autobusa eta herri bazkarirako txartela).

## Karta Soziala idazten jarraituko dute Zornotzan, eguenean

**EZTABAIDA IREKIA >** Datorren eguenean, 19:30ean, dibertsitate funtzionala, jatorri aniztasuna eta aniztasun sexualaren inguruko eztabaida irekia egingo dute Zelaieta zentroko hirugarren solairuan. Eztabaida hau eskubideen gutun soziala egituratzeko prozesuaren barruan kokatzen da. Joan zen astean zen egitekoa, baina atzeratu egin zuten, parte hartu gura zuten denak ezin izan zirelako bertaratu.

# Iritzia

**astekaria@anboto.org**
asteartea 17:00ak arteko epea

### Eskerrak emanez

Lerro hauen bitartez, Durangoko Udalari eta liburutegiko langileei eskerrak eman nahi dizkiet. Azken horiei batez ere, liburuak eta aldizkariak sailkatu, eta kutxetan atonduta, erakutsi didaten prestutasunagatik.
Zaballa espetxeko liburutegian dohaintzan jaso ditugun bitarteko hauek balio handikoak dira guretzat, bai presoen jakingura asetzeko, bai irakurketarako zaletasuna pizteko.

Pedro Pablo Arrinda.
Zaballa espetxeko irakaslea.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

# Berbaz

**Iñaki Gorritxategi** | Jubilatua eta JAEDeko kidea | Berriz, 1931

**Juanito Gallastegi** | Abadea | Durango, 1933



# *"Durangoko bonbardaketaren egileak gorriak izan zirela zioen propaganda faxistak"*

> JONE GUENETXEA

**Juanito Gallastegi abadeak 3 urte zituen 1937ko martxoaren 31n. Bonbardaketa da bere umetako lehenengo oroitzapena. Iñaki Gorritxategik, berriz, sei urte zituen, eta Berrizko Andikona auzotik aho zabalik ikusi zituen gerra hegazkin faxistak heltzen. Bonbardaketaren 77. urteurrenean, Gallastegik lore eskaintza egingo du Andra Mariko oroimen ekitaldian, bonbardaketaren ondorioz hildakoen alde jarritako plakaren aurrean.**

**Zelan gogoratzen duzue Durangoko bonbardaketa?**

**Juanito Gallastegi:** Nik hiru urte nituen. Baina egun horregaz ondo baino hobeto gogoratzen naiz. Gozaltzen nengoela, sirenak jotzen hasi ziren. Gu Kalebarrian bizi ginenez, amak hartu ninduen, eta arineketa batean, gure denda aurretik eta Jesuiten ondotik, Achicorias Momoitio enpresan egokitu zuten babeslekura joan ginen. Ama ezinean ikusi zuen, eta soldadu batek zaku baten moduan bota ninduen babeslekura. Beste ama asko zeuden barruan. Gogoratzen dut nire lehengusina batek "papeles, papeles" esaten zuela. Paper hoiek behea jo zutenean ikusi genuen zer ziren. Dena dardaraka hasi zen.

**Iñaki Gorritxategi:** Berrizko eliza ostean bizi ginen. Bonbardaketa baino lehen, herria miliziaz inguratuta zegoen. Amak zer edo zer bazetorrela ikusi zuen, eta Andikoara osaba-izebaren etxera bidali gintuen. Bederatzi neba-arreba ginen, eta batzuk hara joan ginen. Txahal bat eramateko esan zigun, eta miliziano batzuek kendu egin gura izan ziguten. Horretaz gauzetaz oso ondo gogoratzen naiz. Anaia eta biok negarrez hasi ginen, eta azkenean txahalarekin heldu ginen. Aurretik, *El abuelo* gorrien hegazkina ikusi genuen, birritan. Baina martxoaren 31n hegazkinak hirunaka Durangora joaten ikusi genituen. Gu gazteak ginen, eta inork ez zigun gerrari buruz hitz egiten. Ez genekien zer zen hura. Bonbak jausten eta sua ikusten genuen Andikoatik. Nagusitan lagunek kontatu ziguten bonbardaketa eta gero ere, hegazkinak etorri eta metrailatu egiten zituztela.

> *"Esaten dutenez, bonbardaketetan II. Mundu Gerrarako probak egiten zebiltzan*

**Osteko momentua gogoratzen duzue?**

**J.G.:** Nire kasuan, gu aitaren bila hasi ginen, eta aita gure bila. Baten batek aitari esan zion ikusi gintuela, eta bizirik geundela entzun zuenean lasai gelditu zen.

**Bonbardaketaren ostean, zer egoeratan gelditu zineten?**

**J.G.:** Arriandira joan ginen amama eta osaba-izebengana. Osaba gazteenak nik baino 10 urte gehiago zituen. Arriandtik gerora gertatutako beste bonbardaketa batzuk ikusi genituen.

**I.G.:** Hamabost egun inguru beranduago Andikoatik gure etxera bajatu ginen Berrizera. Nazionalak sartu ziren, eta moroak oso akorduan ditut. Amak ortu ona zeukan, eta hango janariaren truke ordaindu egiten zioten. Baina ordaindu diru frankistagaz. Berrizko medikuaren semea jaio zenean, haren amari gure amak dirua prestatu zion bataiatzeko, ez baitzegoen dirurik inon. Gorrien dirua debekatu egin zuten.

**Propaganda faxistak bonbardaketaren egiletzaren inguruko gezurra zabaldu zuen. Zuek bazenekiten zer gertatu zen?**

**J.G.:** Anekdota bat dut gai horren inguruan. Handik urte batzuetara Comillasera (Kantabria) joan nintzen ikastera. Han jesuitak ziren irakasle. Kasualitatez, Historia abadegai batek ematen zuen, baina ez zen jesuita oraindik. "*Los rojos separatistas en su vergonzosa huida incendiaron las ciudades de...*", eta Durango aipatu zuen. Atzamarra altxatu nuen, eta hori ez dela egia esan nion. "*Cállese*", erantzun zidan. Deitu egin zidan, eta ordubete inguru berbetan egon ginen. Sinetsi egin zidan, eta hurrengo eskolan "*se suprime esta lección*" esan zuen.

**Urte askoan ez zen bonbardaketaren gaia hurrengo belaunaldiei transmititu. Zergatik?**

**J.G.:** Nagusiek ez zuten horri buruz berba egin gura. Nekez irteten zen gaia. Larregi sufritu zuten, antza. Ahal zela gai hori alde batera uzten zen.

**Zein helburu zuten Durangoko bonbardaketek?**

**J.G.:** Esaten zutenez, II. Mundu Gerrarako probak egiten zebiltzan. Geroago bonbak zuzen jausten ziren. Durangokoan papelak zirela ematen zuten, haizeak eramaten zituen.

**Gerraostea zelakoa izan zen?**

**J.G.:** Gure aita frantsesen komentuan espetxeratu zuten, eta, ondoren, Bilbora eraman zuten. Handik Iruñera zeramatela, kamioietan zetozen hainbat preso. Arriandiko gure baserri aurretik pasatu ziren, eta osabak eta biok ikusi egin genuen pasatzen. Ondoren, Mirandako kontzentrazio esparruan egon zen.

**I.G.:** Gogorra izan zen. Gurean errota zegoen, eta zigilatu egin zuten. Gure amari ortuariekin Eibarko azokara joateko ez zioten baimenik ematen. Bestetik, alkateak hainbat herritar salatu zituen, tartean gure aita.

**Memoria historikoaren inguruan behar besteko lana egin da?**

**I.G.:** Maite Arrizabalagak eta beste pertsona batzuek Berrizen lan handia egin dute sasoi hartako dokumentazioa biltzeko. Beraiei esker aita zergatik atxilotu zuten jakin ahal izan dut. Harrezkero, udaletxekoak Salamancara joan ziren dokumentu bila. Markesak gure aitaren alde idatzitako gutuna ere topatu dut. Orduko alkatearen emaztearen lehengusu bat aitagaz batera espetxeratu zuten, eta haren emazteak eragin zuen haiek askatzeko. Alkateak berak gutuna idatzi zuen espetxeratuen alde. "*La justicia de Franco no castiga a ningún inocente*", zioen. Abokatuak hori Bilboko epaiketan ikusi zuen.

Kultura

**Yoko Out** | Eihar Uriarte, Gorka Muñoz, Ander Bastida, Joseba Agirre, Mikel Moisen, Alain Asenjo eta Jon Paulo Azkuenaga

# “Inongo muga eta ordena barik jarduten gara kantak sortzeko”

‘Poeta hiltzaileen hamarkada’ diskoagaz ezagutu genuen Yoko Out taldea, orain lau urte; Durangoko Plateruenean, bihar, ‘Portabentura’ izeneko bigarren diskoko kantak estreinatuko ditu zazpikoteak



> ITSASO ESTEBAN

**Lau urte dira lehenengo diskoa kaleratu zenutenetik. Zelan joan dira urteok?**
Bizitza zoro honetan ahal dugun moduan diraugu. Arlo pertsonalean momentu alai eta tristeak egon dira, taldea gorabehera horietan nabigatzen ibili da inolako helburu finkorik gabe, eta tartean kontzerturen bat ere izan dugu. Astelehenak izan dira gure terapia: lokalean, gure tenplu sakratuan, burrundara guztiak alde batera geratzen dira. Ez daukagu presarik, gure ibilbidea ez du denborak finkatzen: iritsiko gara noiz edo noiz, baina gozatu dezagun bidaiaz.

**Aurreko diskoa entzun zuenak zer nobedade topatuko du ‘Portabentura’ lanean?**
Taldean dauden musika korronte ugari erreka zabal batean hil dira; oraindik itsasora bidean gara, baina disko honetan konplexutasuna, melodia eta estruktura landuagoak eta, agian, esperientziak ematen duen heldutasuna nabaritzen dira. Ez dugu birtuosismorik bilatzen; musikari, eta bereziki rockari, egindako omenaldi sinple bezain sentimentala dira *Portabentura* diskoko 10 abesti hauek.

**Eta zerk irauten du hasierako Yoko Out hartatik?**
Zazpi lagun ginen, eta zazpi lagun gara. Ez dugu musika bakarrik egiten, elkartzen garenean sortzen den kimikak hainbat txorakeria jorratzera garamatza; berba eta barre asko egiten dugu, garagardoren bat edan… Oso ondo pasatzen dugu elkarrekin, eta hori igarri egiten da diskoetan eta zuzenekoetan.

**Zelakoa izan da kanta berriak sortzeko prozesua?**
Oso anarkikoa eta oso demokratikoa; guk ez daukagu metodorik, errutinak ekiditen ditugu. Abestiak sortzeko mekanismoa beti da txinparta txiki bat; esaldi bat, melodia bat, argazki bat, *riff* bat edota erritmo berezi bat. Eta hortik aurrera inongo ordenarik eta mugarik ezarri barik jarduten gara kantak sortzeko. Presarik barik. Abestiaren estruktura instrumentala osatuta dagoenean letrak agertzen dira. Denok parte hartzen dugu sorkuntzan, eta horrek abesti bakoitzari bere izaera ematen dio.

**Disko berria Plateruenean estreinatuko duzue. Kontzertu horretan pentsatzeak zer sentsazio sortzen dizue?**
Emozioa, urduritasuna, poztasuna… Orain dela urte batzuk bertan igo ginen agertokira lehenengoz, eta oso leku berezia da guretzat: inguruko taldeen eta artisten erakusgarri eta euskarri da Kafe Antzokia, eta kanpoko talde askorekin gozatzeko aukera ere eman izan digu. Etxean sentitzen gara bertan, gure lagunen eta familien babesarekin; asko gozatzen dugu, eta seguru oraingoan ere sortutako konexioak gure sentimenak loratuko dituela; taula gainean garen guztia emateko gogoz gaude.

**Diskoa non eskuratu daiteke?**
Hasiera batean diskoa kontzertuetan salduko dugu. Gero, jendeak eskatzen badu, eskainiko dugu diskoa eskuratzeko aukera. Gure bihotzaren zatitxo bat fisikoki etxera eroatea gura duenak aurkituko gaitu, agian, Goienkaleko tabernaren batean, Manolo Escobarren ondoan gasolindegi batean, edo supermerkatu handi bateko *Top ventas* sailean. Nork jakin! Ez dakigu, eta ez zaigu inporta. Hori bai: taula gainean seguru aurkituko gaituela.

**Zelan gura duzue zabaldu?**
Disko honegaz Interneteko *bandcamp* plataforman egin dugu apustua: aurreko diskoko kantak bertan daude, eta laster *Portabentura* diskoko kanta guztiak ipiniko ditugu. Blogari ere (*www.yokoout.wordpress.com*) eman nahi diogu bizitasuna: argazki eta testuekin, abesti berriekin zein zaleen eta gure arteko hartu-emanekin bete. Formatu fisikoari ez diogu uko egiten, gure Alainek edizio sinple, klasiko eta oso dotorea egin du, oso pozik gaude emaitzarekin; merezi du diskoa apal batean edukitzea, noizean behin hautsa kendu eta disfrutatzeko.

## Bizitzaren gorabeherak, lagunarte musikalean

Argazki bat da ‘Portabentura’ bigarren diskoaren abiapuntua: jolas parkeko umetako argazkia




Disko berriaren azala Alain Asenjo bateria-jotzaileak egin du.

Argazki bat da Yoko Out taldeko durangarren *Portabentura* diskoaren abiapuntua: umetan jolas parke batean egindako argazkia. “Bizitza jolas parke baten modukoa da”, diote taldekideek: “Hainbat atrakziotara igotzen gara gure ibilbidean; batzuetan barre egitea tokatzen da, eta, bestetan, aldiz, negar... Baina bizitzan bidea beti da zutitu, beste sarrera bat eskuratu, eta aurrera egitea”.

Bizitza gorabeheratsuan musika dute helduleku. “Melomano hutsak” direla diote, musikazale hutsak: “Errespetu infinitua diogu rockari”. Berdin maite dute rocka, popa, bluesa, folka eta jazza. “Taldekideontzat gure inkonformismoa, gure sentimenduak eta ezinegonak adierazteko bidea da musika: arte abstraktu eta matematikoa den heinean, gizakien barnean sartzeko musikak daukan boterean sinesten dugu: sentimenduak eta bizitza bera azaleratzeko daukan indarrean”.

Plateruenean eurekin joko duten Durangaldeko beste artistekin, Ghetto taldekoekin, *feeling* berezia dutela sentitzen dute Yoko Out taldekoek: “Klase handiko taldea da Ghetto, konposizio aberatsak eta oso landuak dauzkate, eta eskaintza musikal berezia dakarte. Saxoa daukate eurek, eta guk, aldiz, Josebaren harmonika; euskarazko rockaren munduan biok gaude talde arraroen multzoan”.

Yoko Outek etorkizunerako dituen proiekzioetan nagusi dira astelehenero elkartzen eta egiten dutenarekin gozatzen jarraitzea, eta urte askoan euren topagunea ez desagertzea: “lagun talde berezi bezain bitxia” gertu sentitzen jarraitzea. Disko berriaz entzuleen ahotik entzun gura luketena zera da: “Zuen diskoa jarri nuen atzo, eta egunari buelta eman nion”.

> EMANALDIAK

# 500 eskola umek parte hartuko dute kontzertu didaktikoetan

Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskolan eskainiko dituzte kontzertuak



Umeen musikarekiko jakingura eta interesa piztea da kontzertuen helburua.

> ITSASO ESTEBAN

Martxoaren 31rako eta apirilaren 7rako kontzertu didaktikoen saioak antolatu dituzte, Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskolan. Bost eta sei urte arteko eskola umeei zuzendurikoak dira saioak. Musika eskolako arduradunek azaldu dutenez, zentroak duela hamar urte abiatutako programa da berrartu dutena. Durangoko eta Iurretako eskoletako 500 eskola ume gonbidatu dituzte Bartolome Ertzillako emanaldi horietara, eta eskola orduetan egingo dituzte lau emanaldiak.

Musika eskolako hainbat irakaslek eta Markeliñe antzerki taldeko aktore batek egokitu dute kontzertua umeentzat. Musika eta antzerkia lotuta emango dituzte kontzertu didaktikoetan: egoera dibertigarrien bitartez jasoko dute umeek musika. Askotariko doinuak izango dira emanaldietan entzungai; besteak beste, Mozarten, Tchaikovskyren eta Herbie Hancock jazzeko pianistaren obrak entzungo dituzte umeek; baina herri musika ere entzungo dute.

Umeen musikarekiko jakingura eta interesa piztea da kontzertu didaktiko hauen helburua, eta “musika tresnak ezagutzera eman eta umeei hainbat musika estilo interpretatzeko aukera eskaintzea ere bai”. Finean, musika gauza erakargarria eta dibertigarria dela sentiaraziko diete umeei.

> MUSIKA

# Euskal rap, reggae eta rock pisutsuaren gaua

Niña Coyote eta Chico Tornado bikoteak eta Glaukoma taldeak joko dute, bihar, Elorrion



Niña Coyote eta Chico Tornado.



Glaukoma.

> I.E.

Rapeko letra zorrotzak, euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz kantatutakoak, izango dira martxoaren 29an, 23:00etan hasita, Elorrioko gaztetxean; Glaukoma boskote gipuzkoarrarenak. Formazio bereziko rap-reggae taldea da Glaukoma, rock talde baten osaerara gerturatzen dena: bateriak, baxuak, gitarra bik eta ahotsak osatzen dute taldea.

Tolosako Bonberenea gaztetxean sorturikoa da Glaukoma, eta bertan garatu ditu orain arteko lan guztiak. 2012an plazaratu zuen *Vol.1* lehenengo lana, eta *Vol.2* aurkezten dihardu orain. Bigarren disko horretan taldeak bere “alderdi ilun eta gogorrena” islatzen du: “*Jungle* eta *dubstep* musika estiloen soinuak bereganatuta, baina jatorrizko rap-reggae izaera galdu barik”. Euskal Herrian asko dabil diskoa zuzenean aurkezten, eta 2013an, besteak beste, Japonian ere aritu zen taldea.

### AEBetara orduko, Elorriora

Apirilean Estatu Batuetan eskainiko duen bira abiatu orduko dator Elorrion kontzertua eskaintzera Niña Coyote eta Chico Tornado bikotea. Surfin Kaos taldeko Koldo Soret gitarran, eta Las Culebra eta Zuloak proiektuetan jardundako Ursula Strong biltzen ditu Niña Coyote eta Chico Tornado talde donostiarrak. Gitarra, ahotsa eta bateria dira euren lehenengo diskoko kanten osagaiak, eta erritmo pisutsuak emaitza.

## GEURE DURANGALDEA

IÑAKI ETXEZARRAGA 'ETXE'

Musikaria



### Denak ez du balio!

Ilusioz beteriko maleta zulatuek bidaiatzen dute munduan zehar. Ilusio faltsuen munduan bizi gara, eta denak ez duela balio esateko ordua da. Ez dira betiko garai onenak. Euskadin rock'n'rollak ez duela dirurik ematen entzun dugu maiz. Nori ez dio dirurik ematen, ordea?

Zeruan edo infernuan ate joka ibili beharra ez da lan erraza. Baina behin eta berriz egiten dugu. Kolpez kolpe, hautsa astinduz eta sei sokak lagun ditugula tranpaldora ateratzen gara. Azken guda dantza bailitzan. Hurrengorik egongo den jakin gabe. Ikusleari zuzen begietara begira esaten diogu zutik jarraituko dugula. Inork ez gaitu isilduko. Eta bulegoetan gure kontura patrikak betetzen dituztenei, astiro eta amorruz, mendekua egongo dela esango diegu belarrira.

Negu gorri ugari pasa beharko ditugu, baina negua joan dela esango dugu lau haizetara. Udaberriak berriz ere loratuko du geroaren hazi hezia.

Iritsiko da noizbait ilargiak eztanda egingo duen eguna, azken eguna. Zerutik, lainoetatik behera, izarren hautsa eroriko dena. Malkoak isuriko dira itsaso zabalean eta munduan zehar ibiliko dira. “Morphina arren!” oihukatuko dute askok handikeriak sortu dien mina pairatzeko. Eta azken hatsa eman arren, etsi gabe jarraitu duenak, sakon hartuko du arnasa. Gau iluna amaituko da, eta garaipenaren eguna iritsiko da.










PIVE 5
AMONG
'THE BEST'
OPTIONS IN THEIR CLASS
WHATCAR?
"Euren motakoen artean, aukerarik onenetarikoak dira"
FIESTA
TEKNOLOGIA HOBEA
Erabateko lotura SYNC teknologiarekin.
Ahotsaren bidezko kontrol sistema.
PREZIO HOBEAK
FORD FIESTA
8.590€
FORD FOCUS
12.990€
FOCUS
Ford Fiesta eta Focus gama; batez besteko kontsumo konbinatua 3,6tik 7,2ra (l/100 km).
CO2-aren isurtzea 95 g/km-tik 160 g/km-ra
Fiesta 3p Trend 1.25 60 zaldi-potentzia (44kw) airearekin eta CD MP3 irratiarekin; Focus Trend 1.0 EcoBoost (EcoBoost Motorrak %20ra arte hobetzen du kontsumoa, motor arrunt batekin alderatuz gero) Auto-Start-Stop 100 zaldi-potentzia (74kw) 5P Barneko Paketea eta Style Paketearekin. Eskaintzek honako hauek dituzte: BEZa, I.M., garraioa, sustapen deskontua, Aport. Emate eta deskontua FCE Bank plc S.E. entitatearekin finantzatzearren, "Vente a Ford Credit" kanpainaren bidez; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Gobernuaren PIVE planaren ekarpenari lotua. Penintsulan eta Balear Uharteetan baliozko, hilabete amaierara arte. Ez da bateragarria bestelako deskontuekin. Posible da argazkiko modeloa eta eskaintzakoa bat ez etortzea. Auto biak, euren motakoen artean, aukerarik onenetarikoak direla aipatu zuen WhatCar? gidak 2013ko maiatzean.
www.fordkondia.com
FORD KONDIA
Otaola etorb. EIBAR
Tel : 943 207 650
ZIORLA AUTOAK
Santamaña kalea, 19 IURRETA
Tel.: 944 815 135
Ford
ford.es


BERRIA
FORD KA
Auto-Start-Stop sistemarekin
Osagarri ezin hobe bat edukitzeko aukera paregabe.
Edonora eraman nahiko duzu, zure erritmora egokitzen den bakarra delako. Aprobetxatu, eta eraman ezazu Auto-Start-Stop sistemarekin, aire girotuarekin eta MP3arekin.
5.990€
Ka
Oraindik ere ibilgailu erabili bat al duzu buruan?

> DANTZA

# Emigranteen testigantzekin osatu dute 'Erbestea aberri' ikuskizuna

Durangoko San Agustinen eskainiko dute, bihar, ikuskizunaren bertsio berria

> ITSASO ESTEBAN

Duela urtebete, Durangoko Plateruenak herriko hainbat kultur eragilegaz migrazioei buruz antolaturiko Zilar Astea ekimenaren barruan aurkeztu zuen Kriskitin dantza taldeak *Erbestea aberri* ikuskizuna. Zilar Astean aurkezturiko lan horretan sakondu dute aurten, eta ikuskizuna luzatu, Inma Garrastatxuren zuzendaritzagaz. Hainbat testigantza gehitu dizkiote urte honetan hasierako lan hari; atzerritik gurera etorritakoenak zein Euskal Herritik atzerrira joandako jendearenak. Lehen saio hura osatu eta hornitu egin dute, "ikuskizuna biribiltzeko". Martxoaren 29an, 20:00etan, Durangoko San Agustin kulturgunean eskainiko dute ikuskizunaren azken moldaketa.

Duela 25 urte baino gehiago dantza taldea osatu zutenetik egin izan duten bezala, euskal dantzen tradizioa oinarri hartuta, baina berritasuna bilatuta sortu du Kriskitinek *Erbestea aberri*: Zilar Astean, herri ekimen kulturalaren barruan, sorturikoa da kontatzen den istorioa, eta horri egokiturikoak musika eta dantza pausoak. Kriskitineko hemezortzi dantzarik parte hartzen dute ikuskizunean: 16 eta 50 urte artekoak.



Durangoko Plateruenean, Zilar Astearen barruan, aurkeztu zuten ikuskizuna lehenengoz.

Denborarik eta lekurik bako espazio batean kokatu du Kriskitinek *Erbestea aberri*, eta gogoeta bat da sorkuntzaren ardatza: "Gatazka politikoak edo beharrizan ekonomikoak bultzatuta, behartuta, hartutako erabakia da migratzea". Migratzailearen azalean ipini dute Kriskitineko sortzaileek euren burua, eta horixe proposatuko diete, bihar, San Agustinera hurreratzen diren ikusleei ere. Ikusleak hunkitu gura dituzte, baina, hausnarketa egitera bultzatuz.

### Zuzenketa

Joan zen asteko *Anboto* astekariaren *Herririk herri* sailean 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketa oroitzeko antolaturiko ekimenen barruan aipatu genuen Kriskitinen ikuskizunaren emanaldia. Baina *erbestea aberri* emanaldiak ez du aipaturiko egitarau horregaz zerikusirik.

> ARGAZKIGINTZA

# Simoesen 'Madre tierra': maputxeei buruzko lana

2013. eta 2014. urteetan Txileko maputxeekin egin duen lanaren lagina ikusgai ipini du Leo Simoesek

> I.E.

Bere webgunean (*www.leosimoes.com*) ikusgai ipini du Leo Simoes (Iurreta, 1968) argazkilariak azken hilabeteetan garatzen dihardun proiektu fotografikoaren orain arteko emaitza. *Madre tierra (2013-2014)* izena du proiektuak, eta bere garapena erakutsiko du argazkilariak webgunean. "Apunte fotografikoak" eta lanaren ikus-entzunezko lagin txiki bat eskainiko ditu gune horretan. Txileko maputxe herri indigenari buruzko argazkiak eta dokumental bat lantzen dihardu Simoesek herrialde horretan, eta maputxeen komunitateetara egindako bidaia erakusten dute.

Bidaia bi egin ditu Leo Simoesek Txilera azken urteetan: hiru hilabete eman zituen lehenengoan, eta bederatzi hilabeterako joan zen uda amaieran.

Apirilean da Leo Simoes Durangaldera bueltatzekoa. BegiraPhoto Durangoko argazkigintzari buruzko jaialdiaren antolatzaile ere bada, eta buru-belarri ekingo dio lan horri.

> 'Madre tierra (2013-2014)' izena du proiektuak, eta 'www.leosimoes.com' helbidean dago ikusgai



> MUSIKA

# Beñat Egiarte herriko tenorraren kantu emanaldia, Zornotza Aretoan

Apirilaren 4an ariko da Egiarte, Josep Buforn piano-jotzaile katalanagaz

> I.E.

Datorren barikuan, 21:00etan hasita, Zornotza Aretoan eskainiko du Beñat Egiarte bertako semeak kantu emanaldia. Bartzelonan bizi da Egiarte, eta hiri horretan egin izan du azken urteotan lan. Izen handiko artistak biltzen dituzten aretoetan eskaini izan ditu emanaldiak; Katalunian, besteak beste, Gran Teatre del Liceu aretoan edo Palau de la Musican kantatu du azken urteetan. Madrilen, esaterako, Madrileko Auditorio Nacionalean jardun da. Bestalde, iaz, Montserrat Caballé nazioarteko kantu lehiaketaren zazpigarren edizioko finalistetako bat izan zen Beñat Egiarte. 143 herrialdetako 350 kantarik parte hartu zuten lehiaketa horretan.

Apirilaren 4ko emanaldian, Josep Buforn piano-jotzaile bartzelonarrak lagunduko dio Egiarteren ahotsari. Katalunian eta Ingalaterran goi mailako musika ikasketak egindakoa da Buforn, eta, gaur egun, Liceuko kontserbatorioan ganbera-musika eta piano irakaslea da. Hainbat sari irabazi ditu, eta, besteak beste, Kataluniako Orfeoi Gazteko pianista ere bada.

> Euskal konpositoreen kantez osaturiko errepertorioa eskainiko dute musikari gazteek

Elkarrekin, euskal konpositoreen kantez osaturiko errepertorioa eskainiko dute Beñat Egiartek eta Josep Bufornek Zornotzako emanaldian. Besteak beste, Aranbarri, Lavilla, Solozabal eta Canteloube konpositoreen obrak joko dituzte. Operako eta zarzuelako aria ospetsuak ere eskainiko dituzte, gainera, emanaldi horretan.

> Iaz, Montserrat Caballé nazioarteko kantu lehiaketako finalista izan zen Beñat Egiarte



# Kirola

**Nuria Maurtua** | Durango, 1988. Tabirako-Baqué saskibaloi taldeko kapitaina |

## *“Gure helburua, hasieran, ez zen lehenengo postuan egotea”*

Tabirako-Baqueko emakumeen lehen taldea lider dago Lehen Mailan; Nuria Maurtuak dio lehen postuan amaitu gura dutela liga



Nuria Maurtua, entrenamendu baten aurretik.

**> MARKEL ONAINDIA**

**Txikitatik dabil saskibaloian Nuria Maurtua. Bere ahizpa Marina jokatzen ikustean zaletu zen, eta Tabirako-Baqué taldean ibilbide luzea egin du harrezkero. Emakumeen lehen taldeko kide da duela hamar urtetik, eta gaur egun kapitaina da. Momentu gozoa bizi dute aurten; hiru partidu bakarrik galdu dituzte, eta Lehen Mailako lider dira lau jardunaldiren faltan. Garaipenen bidetik, lidergoan amaitu gura dute liga.**

**Joan zen asteburuan Deustun eduki zenuten partidua. Hori ere irabazi, ezta?**

Bai. Luzapeneko azken segundoan. Bihotzekoak emateko modukoa izan zen. Aspalditik ezagutzen dugu elkar, eta badakigu zeintzuk diren bakoitzaren puntu ahulak. Baina txarto pasatu genuen. Nire ustez, egin dugun partidu hasierarik txarrena izan zen. Oso txarto hasi ginen, makal defentsan, eta eurek puntu asko sartu zituzten. Hamazazpi puntugatik galtzen joan ginen. Atsedenaldiaren ostean, defentsa indartu genuen, eta gure joko biziagaz hasi ginen jokatzen. Hamabost minutuan 35 puntu sartu genituen. Luzapeneko azkeneko segundoan Marinak saskiratu zuen, eta horrela amaitu zen partidua. Bizia izan zen.

**Hiru partidu bakarrik galdu dituzue orain arte.**

Bai. Bera-Beraren kontra hamabost puntugatik galdu genuen han, baina besteak puntu bi eta bategatik. Azkenean, gure ligan edonoren kontra irabazi zenezake, eta edonoren kontra galdu. Argi dago gure esku dagoela dena, gure intentsitatean eta defendatzeko eran. Hori da gure puntu gogorra.

**Intentsitatea da, beraz, zuen indargunea.**

Argi dago ez garela ligako talderik altuena. Izatez, txikienetarikoak gara. Nahiko altuak diren pare bat jokalari ditugu, baina besteok ez gara altuak. Proposatu ziguten arin eta joko bizi bategaz jokatzea, eta horrela lortzen dugu irabaztea. Talde asko daude pare bat laurden eusten dutenak, baina azkenera arte ezin dute eutsi. Orduan martxa bat gehiago sartu, eta hor eroaten ditugu garaipenak. Hasieran joko hau proposatu ziguteneaN denoi gustatu zitzaigun, nahiz eta uste genuen, beharbada, ez ginela gai izango denboraldi osoan mantentzeko. Baina ikusten gabiltza ahal dugula.

**Baina ez da hori bakarrik izango hainbeste garaipen lortzeko giltza, ala?**

Aurten nahiko era konstantean gabiltza. Entrenatzaileagaz konfiantza daukagu, eta gure artean ere sortu da konfiantza. Urte nahikotxo daroaguz elkarregaz jokatzen. Aurten etorri direnak iaz ere etortzen ziren entrenatzera, eta askok jokatu ere egin zuten. Nobedade bakarra Ane Sarasola da, gazte mailakoa, baina oso ondo moldatu da taldera. Gure artean dagoen konexio hori... Batzuk elkarregaz zazpi urte daroaguz jokatzen, eta hori igarri egiten da. Badakizu gutxi gorabehera zelan jokatzen duen bakoitzak, pase bat ematen duzunean hor egongo dela nor edo nor. Eta argi dago emaitzak onak direnean askoz errazagoa dela.

> *“Berez, ez daukagu inolako presiorik lehenengo geratzeko, baina hor egonda, bada, ilusioa daukagu”*

**Noiz ikusi zenuten gai zinetela aurrean egoteko?**

Gure ligako talderik onena, jokalariei dagokienez, Donostiako Bera-Bera da. Hemen irabazi genionean, guretzat *txute* bat lakoa izan zen. Primeran jokatu genuen, oso kontzentratuta egon ginen, eta partidu hori irabazi ostean esan genuen gai garela ligako talde guztiei irabazteko.

**Denboraldiaren balantze positiboa egingo duzue momentuz.**

Gure helburua, hasieran, ez zen lehenengo postuan egotea. Argi dago lan egiten duzunean, eguneroko entrenamenduetan ahalegintzen zarenean, eta emaitzak onak direnean, jende guztiaren intentsitatea handitzen dela. Baina, noski, orain hor gaudenez, lehenengo postuan amaitu gura dugu.

**Ligako azken txanpan sartuko zarete orain. Zer itxaroten duzu?**

Lau partidu geratzen zaizkigu, oso gogorrak. Lehenengo postuan amaitzeko, partidu bakoitza final bat balitz bezala hartu behar dugu. Berez ez daukagu inolako presiorik lehenengo geratzeko, baina hor egonda, bada, ilusioa daukagu. Lehenengo postuan geratzen dena igoera fasera doa zuzenean, eta esperientzia hori edukitzea gustatuko litzaiguke.

**Emakumeen Liga-2 txapelketan parte hartuko zenukete, igoz gero. Zer aurreikuspen?**

Ni hasi nintzenean taldea liga horretan zegoen. Oso liga gogorra da. Alde handia dago nazionaletik liga horretara. Talde askok fitxaketak egin, eta kanpotarrak ekartzen dituzte. Esperientzia polita litzateke, baina zentzuz berba eginez gero, ez daukagu hor egoteko talderik: fisikoa eta dirua behar dira, eta denbora aldetik sakrifikatua da.

**Jokalari lez, zer ematen dizu saskibaloiak?**

Esperientzia politak eman dizkit, eta lagun asko. Egia da esperientzia txarrak edukitzen dituzula, baina, orokorrean, bizipen politak eta deskonektatzeko aukera eman dizkit.

> FUTBOLA

# Denboraldiko unerik onenean ezeri ez dio uko egin nahi Amorebietak

Mailari eusteko helburu nagusia beteta, gora begira ipini da Amorebieta; playoff postuan sartzeko borrokatuko da liga amaitzeko falta diren zazpi partiduetan



Lehen itzulian Amorebietak Las Palmasen jokatu zuen partiduko une bat. SD Amorebieta.

>JOSEBA DERTEANO

Aurretik zazpi final geratzen zaizkio Amorebietari, dagoeneko Bigarren B Mailari eustea lortu duen arren. Helburu nagusia beteta, oraindik 21 puntu geratzen dira jokoan, eta playoff postuan dagoen Toledo bost puntura du. Talde asko daude puntu gutxiren barruan, eta postuen dantza horretan Amorebietak oraindik zeresana izan dezake, batez ere, geratzen zaizkion zazpi partiduetatik lau arerio zuzenen (Barakaldo, Athletic B eta Toledo) kontra izango dituelako. Esaterako, domeka honetan, 11:30ean, Las Palmas Atlético bigarren sailkatua hartuko du Urritxen. Irabazita, lau puntura hurreratuko litzateke. Kluben baliabide orokorrei dagokienez, goitik dituen talderik gehienen aldean talde xumea da Amorebieta, baina horrek ez du kokiltzen: "Denboraldiko unerik onenean gaude, eta guztiarengatik borrokatuko dugu. Momentuz ez dugu ezer baztertzen. Mailari eustea lortu genuenean, geure buruari esan genion zortzi final geratzen zitzaizkigula. Tudelanori irabazi diogu, eta orain zazpi final geratzen dira", dio Iñaki Leniz entrenatzaileak. Zazpitik bost irabazita helburua lortu dezaketela uste du, baina kalkuluak errealitate egiteko modua partidurik partidu joatea dela uste du.

Domekako partidua da dinamika horretako lehen erronka. Las Palmas talde "oso ona" dela uste du Lenizek: "Ez da beste filial batzuen modukoa. Jende gaztea eta esperientziaduna batzen ditu. Guk asko presionatzera, eta intentsitate handiagaz jokatzera irten behar dugu, batez ere, lehen ordu laurdenean".

## Talde goleatzailea

Bigarren B Mailan bere multzoko bigarren talderik golegileena da Amorebieta, Real Madrid C-ren atzetik. Mikel Orbegozo hamar golekin eta Javi Casares bederatzirekin (Tudelanoren kontrako garaipenearen gola sartu zuen) dira taldeko goleatzaile nagusiak, baina denboraldi honetan beste hamar jokalarik ere lortu dute arerioaren atea zulatzea; esaterako, Aitor Blancok bost gol daramatza, eta Nestor Salinasek lau.

Defentsan, aldiz, gero eta sendoago dabil Amorebieta. Lehen itzulian, eta etxean, nahi baino gol gehiago jaso zituztela onartu du Lenizek, baina bigarren itzulian lan hobea egiten ari dira.

> MOTOZIKLISMOA

# Aitor Martinezi egindako ebakuntza ondo irten da

Hanka bietan egin zioten ebakuntza joan zen astean

Zortzi egun joan dira Aitor Martinez motor-gidari abadiñarrari hanka bietan ebakuntza egin ziotenetik. Eskuin hankatik tendoi zatiak kendu, eta txarto zeukan ezkerreko belaunean txertatu zizkioten. Ebakuntza ondo joan zela adierazi du abadiñarrak. Oraindik hanka biak bendaz babestuta ditu. Makuluen laguntzagaz eskuin hanka lurrean jartzeko kapaz dela dio, baina ezkerreko hankak denbora gehiago beharko duela.

Ohiko bizimodua egiteko hiru hilabete beharko dituela aurreikusi dute, eta berriro lehiatzeko bost-sei hilabete beharko ditu. Dena dela, aurtengo denboraldia bertan behera utzi du: "Txarrena pasatu dela, eta erabat sendatzeko zortzi egun gutxiago falta direla pentsatzen dut. Jarrera positiboa izatea gustatzen zait", adierazi du. Ebakuntza egingo ziotela iragarri zuenetik jendearen aldetik jasotako berotasuna ere eskertu du.

> AUTOMOBILISMOA

# Abadiñon auto klasikoak eta monoplazak hizpide

Gaurko hitzaldia antolatu dute, Errota kultur etxean

Kirola, motorra eta ikerketa batzen dituen hitzaldia antolatu dute gaurko, 19:00etan, Abadiñoko Errota kultur etxean. Bertan eserleku bakarreko ibilgailu bat egiteko Formula Student proiektuan parte hartu duten Maristak ikastetxeko ikasleak egongo dira, eta baita auto klasikoen munduan dabiltzan Clásicos Durango elkarteko kideak ere.

Maristetako ikasleek Formula Student proiektuan izandako parte hartzeari buruz berba egingo dute. Mundu osoko unibertsitate askok parte hartzen dute eserleku bakarreko ibilgailu onena egiteko lehiaketan. EHUren lehiaketan parte hartu, eta eserleku bakarreko ibilgailu bat egin dute; bertako esekidura Maristetako ikasleen artean eraiki dute.

Clásicos Durango taldeko ordezkariek, aldiz, euren zaletasunaren, eta urtero Durangon antolatzen duten lasterketaren gainean jardungo dute.

## ADITUAREN TXOKOA



Juan Carlos Perez

Areto-futbola

### Batzearen garrantzia

Orain aste batzuk Elorriokok eta Debabarrenak sinatu duten lankidetza hitzarmenari buruzko berria irakurri nuen *Anboto*-n. Inguruko areto-futbolarentzat albiste ona da.

Bilbo estatu mailako gorengo kategoriatik jaitsi zenetik, gure kirol honek erakargarri egingo duen erreferentzia bat falta du. Lurraldekako mailetan talde berrien gorakada eman den arren, estatuko areto-futbolaren atzealdean jarraitzen dugu. Futbol 11n gertatzen denaren kontrara, areto-futboleko klub gehienei egitura klasikoa falta zaie: zuzendaritza, teknikoak, jokalariak… Jokalariak eurak dira kudeaketaren arduradun.

Positiboa da kirol arloan zein ekonomikoki baliabide gehiago dituztenekin hitzarmenetara heltzea. Horrek ez du esan gura klubik xumeenek nortasuna galduko dutenik. Badira urte batzuk Elorrio eta Sasikoa askotariko mailetan eta alderditan areto-futbolaren alde lan handia egiten ari direna. Baina helburu handiagoetarako baliabideak falta zaizkie.

Aurreko denboraldian Elgoibarrek eta Zierbanak ezin izan zuten mailaz igo diru faltagatik. Beraz, Bartzelonak egin zuen moduan, Athletic edo Erreala areto-futboleko talde bat sortzera animatzen ez diren bitartean, kluben arteko lankidetza sustatzea beste biderik ez zaigu geratzen. Bigarren Mailarako talde bat lortzea elitera heltzeko lehen pausoa litzateke, eta hori beharrezkoa da euskal areto-futbolak hainbeste behar duen jauzi kualitatiboa emateko.

**Erredakzioan itzulia*






# JATETXE GIDA

ÑAM!




## PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ
**Tel.: 946 826 246**

Eguneko menua. Karta. Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.

ÑAM!



## PLATERUENA
**Kafe Antzokia**

Landako etorbidea, 4
**Tel.: 946 030 300**

Eguneko menua astelehenetik zapatura. Taldeentzako menu adostuak. Askariak.

ÑAM!

### MENU BEREZIA

Sarrerakoak (2 aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria

**60€ bikoteko**
(BEZa barne)

## JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ
**Tel.: 946 824 077**

Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.

ÑAM!



## IBARRA SAGARDOTEGIA

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA
**www.ibarra-sagardotegi.com**
**Tel.: 946 731 100**
Egunero zabalik.
Gure upategian egindako sagardoa.
Aparkaleku pribatua eta jolastokia.

IBARRA SAGARDOTEGIA

Ibarra Sagardotegiaren eskutik bi pertsonarentzako menua zozketatuko dugu

**Zornotzako zein tenorrek eskainiko du kantu emanaldia bere jaioterrian, apirilaren 4an?**

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org helbide elektronikora edo Anboto astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

ZORTE ON!

> GIMNASIA ERRITMIKOA

# 200 gimnasta gazte Bizkaiko finalaren bila, bihar, Landakon

Eskola mailako Bizkaiko Txapelketaren barruan, 200 gimnasta gaztek euren dohainak erakutsiko dituzte zapatuan, Durangoko Landako kiroldegian


Landako kiroldegia gimnasta gazteekin beteko da bihar. Uztai.

> JOSEBA DERTEANO

Bizkaiak gimnasia erritmikoan duen harrobi oparoa Landako kiroldegian batuko da bihar, egun osoan. Benjaminetatik kadeteetara arteko 200 gimnasta gaztek Bizkaiko Txapelketako bigarren fasea lehiatuko dute. Onenentzako saria finalerako sailkapena izango da.

8 eta 16 urte arteko gimnasta askok parte hartuko dutela kontuan hartuta, txapelketa egun osora zabaldu dute: 10:00etatik 20:00etara. Maila bakoitzeko gimnastek aparatu jakinekin egin beharko dituzte euren koreografiak: benjaminek pilotagaz, kimuek uztaiagaz, haur kategoriakoek pilotagaz eta kadeteek mazoagaz. Durangoko Uztai taldeak maila bakoitzeko bi eta lau gimnasta artean izango ditu. Landakon batuko direnak gimnasta gazteak diren arren, koreografia landuak eskainiko dituzte. Hala ere, lehiaren gainetik, gimnasia erritmikoaren inguruko egun osoko jaialdia Durangon izatearen garrantzia azpimarratu dute Uztai taldeko kideek.

### Gora egin duen kirola

Gimnasia erritmikoa entrenamendu saio asko eskatzen dituen kirola da, hala ere, baditu ezaugarri batzuk gazteak erakartzen dituena, eta azken hamabost bat urteetan gorakada izan duela uste du Miren Barturen Uztai taldeko kideak: “Azken hamarkada bietan asko egin du gora gimnasia erritmikoan parte hartzen duen neska kopuruak. Ez dakit zehatz zenbat, baina sasoi bateko kopurua hamar aldiz hazi dela esango nuke”. Alde batetik, “gurasoak konturatzen dabiltza kirol mota sanoa eta onuragarria dela gazteentzat”. Bestetik, gimnasia erritmikoaren “estetika eta erritmo lanketa” ere erakargarri egiten ei zaizkie kirol honetara hurreratzen diren gazteei. Kirol honen hazkundearen erakusgarri da taldekako eta buruz buruko txapelketak banatu izana: “Lehen batera egiten zituzten, baina gimnasta kopuruak gora egiten duenez, egun bakarrean ez zegoen denak sartzeko astirik, eta banatzea erabaki zuten”.

Hala ere, oraingoz, Uztai taldea da Durangaldeak gimnasia erritmikoari lotuta duen talde bakarra. Gaur egun, 20 urtera arteko 140 gimnasta ditu Durangoko taldeak.

> TXIRRINDULARITZA

## Filipinetako talde bat Zornotzako Udaberri Sarian

Filipinetako LBC-MVP Sports Foundation Cycling Pilipians taldeak apirilean Europako hainbat lasterketatan parte hartuko duela iragarri du. Apirilaren 5ean Miguel Indurain Sari Nagusian egongo dira, hurrengo egunean Errioxako Itzulian, eta apirilaren 14an Zornotzako Udaberri Klasikoan. Hiru lasterketa horiek UCIren 1.1 kategoriakoak dira. Ondoren, Herbehereetako beste lasterketa batzuetan parte hartuko dute.

> TRIATLOIA

## Mugarra taldeak 10. urteurrena ospatuko du

Durangoko Mugarra Triatloi Taldeak 10. urteurrena ospatuko du apirilaren 5ean. Hainbat ekintza prestatu dituzte, tartean Plateruena Kafe Antzokian egingo duten bazkaria. Bazkari horretarako txartelak antzokian bertan eskuratu daitezke: nagusiek 20 euro, eta 12 urtetik beherakoek 10 euro. Egun horri begira prestatutako egitarauaren barruan umeen jolasak, triki-poteoa, bertsolariak eta musika saioak daude, besteak beste.

> JUDOA

## Zortzi domina irabazi ditu Durangoko judo taldeak

Euskadiko Txapelketarako sailkatzea lortu du

Joan zen asteburuan, haur kategoriako eta kadete mailako Bizkaiko Txapelketak jokatu zituzten, eta Durangoko judo taldeko zortzik lortu zuten Euskadiko Txapelketan jokatzeko txartela. Sailkapenaz gainera, hainbat domina lortu zituzten. Kadete mailan, Marian Bazan, Eneko Diez eta Daniel Grigorek hiruna urrezko domina irabazi zituzten. Eider Vivancok, aldiz, zilarrezko domina irabazi zuen. Aitor Vivancok brontzezko domina irabaztea lortu zuen arren, ez zuen lortu Euskadiko Txapelketarako sailkatzea.

Haur kategorian ere lau domina lortu zituzten. Irabazi eta sailkatzea lortu zutenak Paul Barruetabeña, Mikel Carretas eta Iker Perez dira. Eneko Carballok 60 kilokoan bigarren postua lortu zuen, eta, beraz, Gasteizen jokatutako den txapelketan egoteko aukera izango du.

## AGENDA

> FUTBOLA

**BIGARREN B MAILA**

**Amorebieta - Las Palmas**
· Domekan, 11:30ean, Urritxen.

**OHOREZKO MAILA**

**Elorrio - Derio**
· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

**LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)**

**Berriz - Iraultza**
· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun.

**LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)**

**Iurretako - Berango**
· Domekan, 18:00etan, Larrakozelaian.

**BIGARREN ERREGIONALA**

**Ezkurdi - Montefuerte**
· Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan.

**Iurretako B - Mungia B**
· Zapatuan, 16:00etan, Larrakozelaian.

> ARETO FUTBOLA

**MAILA GORENA**

**Sapuberri - Iturritxu**
· Zapatuan, 19:45ean, Landakon.

**Kurutziaga - Gramol**
· Zapatuan, 18:15ean, Landakon.

**LEHENENGO ERREGIONALA**

**Abadiñoko Gaztetxie - Aurrera Beti**
· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

**Elorrioko Buskantza C - Adarve**
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrion.

**HIRUGARREN ERREGIONALA**

**Racing Tolosto - Mendibeltz**
· Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

**Elorrixo Txiki - Lagun Onak B**
· Zapatuan, 15:05ean, Elorrion.

**Gu Lagunak - Biarko Gizonak**
· Zapatuan, 15:45ean, Landakon.

> SASKIBALOIA

**LEHEN MAILA (gizonak)**

**Tabirako Baqué - Mondragon**
· Domekan, 12:00etan, Landakon.

**LEHEN MAILA (emakumeak)**

**Tabirako Baqué - Erroibide Irun**
· Domekan, 12:00etan, Landakon.

>ERRUGBIA

**OHOREZKO B MAILA**

**DRT - Uni Bilbao**
· Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan.



# Maristetan Batxilergoa egitea erabaki nuen!

## Irakasleen etengabeko hobekuntza eta gogoa

2013an amaitu nuen Batxilergoa Maristetan. Nahi nuen graduan sartzeko nota nahiko altua eskatzen zuten, baina azkenean Erizaintza ikasten nago.

Maristetan **Moodle** erabili izanak asko lagundu dit unibertsitatean. Orain edozein lan igotzeko, informazioa bilatzeko, edo notak ikusteko Moodle erabiltzen dugu. Hori dela-eta, oso ondo moldatu naiz, eta, sarritan, zailtasun asko dituztela ikusita, ikaskideei laguntzea tokatzen zait.

Gainera, graduko **aurkezpenak** ikaskideen aurrean egiterakoan, edota hainbat programa erabiltzerakoan, oso lagungarria egin zait Batxilergoan ikasitakoa.

Batxilergoko bigarren mailan **Alemaniara Maristetako truke** bati esker joan nintzen. Horrek kultura berri bat ezagutzea, nire ingelesa hobetzea eta independenteagoa izaten lagundu zidan.

Zerekin gelditzen naizen Maristetatik? Irakasleak, gehiago eskaini dezakegula dakitenez, beti daude **gehiago eskatzen**. Presio hori ona da, esfortzuak merezi duela erakustarazten digulako. Horretaz gain, **irakasleek gauza berriak egiteko eta ikasteko duten gogoa ere aipatuko nuke.**







## Nire buruan konfiantza eta prestakuntza ona unibertsitaterako

2013an bukatu nuen Giza Zientzietako Batxilergoa, eta aurten hasi naiz Irakasleen Unibertsitate Eskolan.

Nire kasuan DBHko 4. mailatik etorri nintzenean, ez nuen nire burua kapaz ikusten unibertsitatera joateko, ezta Irakaskuntzarako eskatzen zuten nota eskuratzeko ere. Eta hori Maristetan lortu dut, irakasleek transmititzen diguten motibazioari esker, **nire buruan konfiantza edukitzea** irakatsi didate-eta.

Maristetan **lantaldeetan** ibiltzen ginenez, sortu daitezkeen arazoei aurre egiten ikasi nuen; zein arazo egon daitezkeen lantalde batean, nola antolatu behar diren, koordinatzaile bat egon behar dela, eta nahiz eta taldean jendearekin ondo eraman, irakatsi zidaten arau batzuk jartzea ezinbestekoa dela taldeak ondo funtzionatzeko.

Nik **hezkuntza sistema eta ebaluazio irizpideak** nabarmenduko nituzke. Izan ere, ebaluazio irizpideetan zure konpetentziak zeintzuk diren erakusten dizkizute. Horrela, zein gaitasunetan hobetu behar duzun erakusten dizute.

Maristetan erabiltzen dituzten **metodologiei** esker, hainbat kontzeptu teorikoz aparte, nabarmenduko nukeena hau litzateke: balioen transmizioa eta hezkuntzak dituen lau oinarriak –ezagutzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, jakiten ikastea eta egiten ikastea ezagutzea–.

## Prestakuntza erreala eta ona zure etorkizunerako

2009. urtean bukatu nuen Batxilergo Teknologikoa Maristetan. Batxilergoan egon nintzen urteetan, **irakasleekiko hurbiltasunari** eta eurek emandako **orientazioari** esker, teknologia alorra ez zela nire esparrua erabaki nuen, eta azkenean Politika eta Administrazio Zientziak ikasi nituen.

Maristetan oso ondo prestatu gintuzten bai **hizkuntza** aldetik, baita talde lanaren **gaitasunaren** aldetik ere; izan ere, oso formakuntza **zuzena**, **erreala** eta **praktikoa** eman digute ikasleoi.

Hori dela-eta, baieztatu ahal dut, Batxilergoa Maristetan burutzen baduzu, **oso ondo prestatuta** irtengo zarela zure **etorkizunari** aurre egiteko.







## Internalizazioa eta motibazioa

Iaz desiatzen nuen graduan (Energia Berriztatzaile Ingeniaritza) sartzea lortu nuen.

Niri, bereziki, Maristetan dauden **instalazioak** eta ikasi genituen **programen** erabilerak Ingeniaritzan oso lagungarri egin zaizkit.

Hiru hitz azpimarratzekotan, **internazionala, teknologia berrikuntza eta elkartasuna** izango lirateke.

Maristetako gauza onenak zeintzuk diren? Irakasleen gertutasuna eta laguntzeko nahia. Azkenean, horrek ikasteko momentuan, **motibatu** eta **nota hobeak** ateratzen laguntzen dizulako.



# Inmobiliariak

AMBOTO INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

AGENCIA INMOBILIARIA Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
